

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du eta gainerakoetan 0,8.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</li> </ul>	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzentzat da**.

## 1. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

## KULTURA-MEZENASGORAKO PIZGARRIEN FORU-ARAU PROIEKTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran onartu du kultura-mezenasgorako (artistek, idazleek edo zientzialariek beren lana egin ahal izateko, pertsona batzuek edo erakunde batzuek ematen dieten laguntza) zerga-pizgarrien foru-arau proiektua. *Etorkizuna Eraikiz* **1** testuinguruan lantzen ari diren proiektu berritzaileetako bat da foru-arau berri hau eta orain arte martxan jarri diren hamazazpi proiektuen barruan kokatzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, *Etorkizuna Eraikiz* markoaren bidez, herritarrak kezkatzen dituzten arazoan aurrean erantzunak aurkitu nahi ditu gipuzkoarrek etorkizun hobea izan dezaten. Alde horretatik, araudi berriak **2** ezartzen ditu interes soziala duten asmo eta kultura-ekimenetarako, erakunde publiko edo pribatu eta kultura-arloko zenbait profesionalak egiten dituzten ekimenetarako. Helburua, kasu honetan, kulturarekin erlazionatutako proiektuetara baliabide pribatuak erakartzea da. **3**, foru-arau proiektuak % 35 arteko pizgarria ezartzen du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ), eta % 20 artekoa Sozietateen gaineko Zergan.

Diputatuen Kontseiluaren **4** jaso ostean, foru-arau proiektua Batzar Nagusietara bideratuko da. Bertan eztabaidatu eta **5** da, batzordean lehenengo, eta Osoko Bilkuran ondoren. Datorren urteko lehen hilabeteetan onartzea espero du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta **6** urtarrilaren 1ean sartuko litzateke. Araudi berria gaur aurkeztu dute hedabideen aurrean Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako foru-diputatuak eta Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuak, hots, ekimen hau bultzatzen duten bi foru-departamentuek.

«Arau berriak European arlo horretan ezarri diren arautegi aurreratuenak eta onenak hartu ditu **7** eta kultura-produktuen sortzaileei independentzia gehiago eman die. **8**, gure asmoa da kultura behar bezala finantzatzea, donazioak modu erakargarrian saritzea eta herritarren protagonismoa **9** kultura-proiektuak diseinatzeko orduan», azaldu du Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako foru-diputatuak. «Gainera, **10** honetan sortu duten Arteen eta Kulturaren Kontseiluak zeregin gehiago izango ditu».

**11**, «foru-arau proiektuak zerga-pizgarri esanguratsuak aurreikusten ditu partikularrentzat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidez eta enpresentzat Sozietateen gaineko Zergaren bidez. Gainera, artista eta sortzaileei (ez soilik erakunde publiko eta fundazioei) egiten zaizkien donazioek ere pizgarriak izango dituzte», nabarmendu du Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako foru-diputatuak.

**12**, gehitu duenez, sorkuntza artistikoa sustatzeko eta finantzatzeko beste modurik ez duten pertsonen finantzaketa-bideak **13** nahi dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Finantzetako foru-diputatuak, bere aldetik, kultura eta mezenasgoa Antzinarotik **14** direla gogoratu du, «eta etorkizunean ere gizarte aurreratua izaten jarraitu nahi badugu, ezinbestekoa da gure **15** eta ekoizpen kulturala zaindu eta berritzea. Horra hor proiektu hau *Etorkizuna Eraikiz* markoan lantzearen zergatia». «Ahalik eta **16** gehien inplikatu behar ditugu gure kulturaren finantzaketan, administrazio publikoak zein gizarteak bere osotasunean ardura partekatua baitugu alor honetan», nabarmendu du.

Foru-arauaren edukietara sartuz, Finantzetako foru-diputatuak zehaztu du pizgarriak aplikatzeko, **17** egin behar direla mezenasgoa jasotzen duten jarduera edo proiektuetara, edo bestela Gipuzkoako Foru Aldundiak edota Gipuzkoako Arteen eta Kulturaren Kontseiluak (kasuaren arabera) interes soziala dutela

**18** duten ekimenetara.

<[www.gipuzkoa.eus](http://www.gipuzkoa.eus)>, 2018ko azaroa. Egokitua

### 1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- |                                                                             |                                                                          |                                                                 |
|-----------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------|
| 1. a) eskakizunaren<br>b) egitasmoaren<br>c) ebazpenaren<br>d) emanaldiaren | 2. a) eskariak<br>b) agerkariak<br>c) kenkariak<br>d) aurrekariak        | 3. a) Dirudienez<br>b) Haatik<br>c) Horretarako<br>d) Hala ere  |
| 4. a) oniritzia<br>b) elea<br>c) irizpidea<br>d) lagina                     | 5. a) galaraziko<br>b) baldintzatuko<br>c) antzutuko<br>d) bozkatuko     | 6. a) debekuan<br>b) lehian<br>c) aurrekontuan<br>d) indarrean  |
| 7. a) eredutzat<br>b) emankizuntzat<br>c) mozkintzat<br>d) jakintzat        | 8. a) Horrez gain<br>b) Batez beste<br>c) Izan ere<br>d) Horiek horrela  | 9. a) agortzea<br>b) areagotzea<br>c) isolatzea<br>d) gogaitzea |
| 10. a) legealdi<br>b) agerraldi<br>c) ekitaldi<br>d) aisialdi               | 11. a) Harrezkero<br>b) Esan bezala<br>c) Dena den<br>d) Behinik behin   | 12. a) Halabeharrez<br>b) Agian<br>c) Alabaina<br>d) Horrela    |
| 13. a) gutxietsi<br>b) zabaldu<br>c) gaitzetsi<br>d) metatu                 | 14. a) aurkezle<br>b) aurkari<br>c) bidelagun<br>d) ordezkari            | 15. a) ondare<br>b) orube<br>c) hondakin<br>d) oroimen          |
| 16. a) erantzule<br>b) eratzaile<br>c) erakusle<br>d) eragile               | 17. a) argiztapenak<br>b) aldarrikapenak<br>c) ekarpenak<br>d) bizipenak | 18. a) ebatzi<br>b) kontrajarri<br>c) salbuetsi<br>d) ihartu    |

## 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## BABES HANDIAGOA IZATEKO GILTZA

Kostata eta berandu, baina azkenean onartu du Espainiako Kongresuak Hipoteka Lege berria. Kostata, 2017ko udazkenean hasi bazuen ere onartzeko bidea, ia urte eta erdi pasatu dituelako eztabaidan. Berandu, Europako Batzordeak jarritako epemuga gainditu duelako. 2016ko apirila baino lehen egokitu behar zuen legea Europako zuzentara. Atzeratutako egun bakoitzeko 100.000 euroko zigorra jaso dezake. Gaur argitaratuko dute legea BOEn eta 30 egun barru jarriko da indarrean. Legeak ez du atzerako eraginik izango eta, beraz, ez da aplikatuko kontratu zaharretan, etxegabetzeekin zerikusia duten klausuletan izan ezik.

Ezer sinatu aurretik, bezeroak kontratuaren zirriborroa esku artean izan beharko du hamar egun lehenago. Bankuak bi dokumentu helarazi beharko dizkio: Informazio Estandarizatuen Europako Fitxa (ESIS) eta Ohartarazpen Estandarizatuen Fitxa (FiAE). Lehenak hipotekaren ezaugarri guztiak batu behar ditu: maileguaren zenbatekoa, iraupena, interes-tasa mota eta itzuli beharreko kopuru osoa; urteko tasa-baliokidea, bai hasieran, bai hiler ordaindu beharreko beste gastu guztiak, kuota kopurua, aldizkakotasuna eta zenbatekoa; eta mailegua beste dibisa batean hartzean truke-tasek izan ditzaketen ondorioei buruzko adibideak. Ohartarazpen fitxaren bidez, klausula eta elementu garrantzitsuen zein haiei lotutako arriskuen berri izango du bezeroak. Hor jasoko dira, besteak beste, aurretiazko itzulerarako aukerak, maileguari lotutako gastuak... Interes-tasa aldatzeko hipotekaren kasuan, entitateak beste agiri bat ere eman beharko dio mailegu-hartzaileari, interes-tasen bilakaera desberdinetan kuotak zein izango lirakeen azaltzeko. Bankuak, kasu guztietan, sakonean aztertu beharko du mailegu-eskatzaillearen fidagarritasun ekonomikoa, gastua bankuak berak ordainduta. Ordaindu ezin dutenei hipotekak ematea eten nahi dute horrela.

Gogoetako hamar egun horietan, notarioak kontratuari eta bertan jasotzen diren klausulei buruzko aholkularitza eman beharko dio bezeroari dohainik. Eskatzaileak, notarioaren aurrean,

galdetegi bat erantzun beharko du hipotekaren nondik norakoak ulertzen dituela egiaztatzeko. Behin gaindituta, agiria sinatu beharko du, kontratu aurreko dokumentazioa jaso eta ulertu duela baieztatzeko. Horrez gain, notarioak egiaztatu beharko du hipotekak ez daukala Auzitegi Gorenak indargabetutako klausularik.

Hipoteka Legeak debekatu egingo du kontratuan zoru-klausulak sartzea. Horrela, interes aldakorra daukaten kredituetan bankuek ezin izango dute gutxieneko interes bat finkatu. Bezeroak Euriborraren edo hura ordezkatu behar duen indizearen jaitsierak baliatu ahal izango ditu arau berriarekin. Hala ere, inoiz ezin izango da negatiboa izan; hau da, gutxienez % 0 izango da, eta bankuek ez diote bezeroari inoiz interesa ordaindu beharko. Aurrerantzean bankuek ezin izango dizkiete hipotekari lotutako produktu gehiago inposatu bezeroei. Hori bai, eskaintzen jarrai dezakete. Banku askok hobariak ematen dituzte hipotekarekin batera beste produktu batzuk kontratatzearen. Orain, ordea, maileguaren kostua soilik dakarren aurrekontu bat eskaini beharko diote bezeroari. Gainera, mailegatzaileak bankuarenak ez diren beste aseguru-poliza batzuk sar ditzake kontratuan, eta gehitze horrek ezin izango ditu maileguaren baldintzak okertu. Horrez gain, araudiak galaraziko du bankuko langileen soldata lotuta egotea lortzen dituzten kredituen kantitatera. Hau da, langile batek ez du gehiago kobratuko mailegu gehiago lortzearen.

Legeak gehiago babestuko ditu hipotekatuak enbargoaren aurrean. Lehen, kredituaren lehen erdian hiru hilabete ez ordaintzea nahikoa izaten zen hipoteka betearazteko. Orain, etxegabetzea abiatzeko, ordaindu gabe egon behar dira hamabi hilabete edo utzitako diruaren % 3. Maileguaren bigarren erdian bada, hamabost hilabetez kuota ez pagatzea edo maileguaren %7 ordaintzeke izatea izango dira baldintzak etxegabetze-prozesu bat indarrean jartzeko.

Ohikoa da kreditua zabaltzeagatik bankuek komisio bat eskatzea. Lege berriak ez du bide hori moztuko. Hala ere, tasa bakar ordaindu beharko

du bezeroak, eta hor jasoko dira bai irekierako komisioa, bai sor ditzakeen gainerako gastuak, paperak egitea esaterako. Arau berriarekin bezeroa bankuz alda daiteke edo hipoteka hobetu, inongo gasturik gabe. Subrogazioa gertatuko balitz, bi bankuen artean banatu beharko lituzkete

gastuak. Neurri horrek ekidin nahi du bankuentzat errentagarriagoa izatea beste erakundeen kredituak bere egitea, mailegu berriak ematea baino.

**ALBERDI, B. *Berria*, 2019ko otsaila. Egokitua**

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 19. Zer dio testuak Hipoteka Lege berriaz?

- a) Epemuga gaintu ez arren, urte eta erdi pasatu dutela eztabaidatzen.
- b) Berandu onartzeagatik Europak zigorra ezar diezaiokeela Espainiari.
- c) Kontratu guztiei eragingo diela, noiz sinatu ziren kontuan hartu gabe.

### 20. Zer da Informazio Estandarizatuen Europako Fitxa?

- a) Kontratua indarrean egon baino hamar egun lehenago sinatu beharreko fitxa.
- b) Besteak beste, mailegua aurretiaz itzultzeko aukerak zehazten dituen fitxa.
- c) Ohartarazpenarekin batera bankuak bezeroei helarazi beharko dien fitxa.

### 21. Zer gertatuko da interes-tasa aldakorreko hipotekekin?

- a) Bankuak kuoten inguruko informazioa eman beharko diola bezeroari.
- b) Beste hipoteketan ez bezala, eskatzailearen fidagarritasuna aztertuko dela.
- c) Bankuak ESIS eta FiAE fitxak bakarrik eman beharko dizkiola bezeroari.

### 22. Zer egin behar du notarioak?

- a) Bezeroari aholkularitza eman behar dio mailegua ordaindu arte.
- b) Auzitegi Gorenaren aurrean egiaztatu behar du sinatutakoaren balioa.
- c) Eskatzaileak hipoteka behar bezala ulertu duela ziurtatu behar du.

### 23. Zer dio legeak interes-tasa aldakorreko kredituen interesaz?

- a) Beste indize bat erabili beharko dela Euriborra negatiboa bada.
- b) Gerta litekeela bankuak bezeroari interesa ordaindu behar izatea.
- c) Bankuak ezin izango diola bezeroari gutxieneko interesik ezarri.

### 24. Zer dakar lege berriak?

- a) Bankuko langileen soldata sinatutako kredituen kopuruari lotzea debekatzea.
- b) Bezeroak hipotekari lotutako hainbat produktu ezinbestean kontratatzea.
- c) Beste banku bateko aseguruak izanez gero, maileguaren baldintzak okertzea.

### 25. Noiz betearazi daiteke hipoteka?

- a) Bigarren erdian urtebete baino gehiagoz kuota ordaintzen ez denean.
- b) Lehen zein bigarren erdian maileguaren % 7 ordaintzen ez denean.
- c) Kredituaren lehen erdian hiru hilabetez ordaintzen ez denean.

### 26. Zer gertatuko da kreditua zabaltzeagatik kobratzen diren komisioekin?

- a) Legeak bankuaren esku uzten duela kobratzeko erabakia.
- b) Tasa bakar batean ordainduko direla komisio guztiak.
- c) Legez erabat debekatuko direla ohiko komisio horiek.

## 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (27, 28, 29...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

## EMAKUMEEN BOTO-ESKUBIDEAK MENDE BAT BETETA, SUFRAJISTEN IRAULTZAK EZ DU ETENIK

1918. urteko otsailaren 6an onartu zen Britainia Handiko emakumeen boto-eskubidea, hauteskundeetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun formalari bide emanez. Berrogeita hamar urte baino gehiago iraun zuen borroka baten ondoren, indarkeria pairatu, hildakoak izan eta preso zituztela gose-greban zeuden mila emakume baino gehiago bortxaz elikatu ondoren, Britainia Handiko emakumeek, emakumeen % 40 batek hobe esanda, herritartasun-eskubide osoa irabazi zuten duela mende bat. Mende bat geroago, ordea, emakumeek eta gizonen politikan balio bera dutela erabat aitortzeke dago. Baina historiari buelta emateko erronka ez da sekula gutxietsi behar. **27**

Sufrajista britainiarren mugimenduak hogeita hamar urte baino gehiago zituzten eta ondasunen jabe ziren emakumezkoen –edo ondasunen jabe ziren gizonzkoekin ezkonduetakoekin– boto-eskubidea lortu zuen orain dela mende bat.

**28** Sufrajistek, berriz, bere egin zuten izengoitia eta, beren burua gerlarizat hartuta, ideia bat jarraitu zuten –ekintzak, ez hitzak–. Bazeuden ildo bakezaleagoa jarraitzen zuten beste emakume talde batzuk, lobby-lana lehenesten zutenak.

**29** Emmeline Pankhurst bera ere 11 aldiz espetxeratu zuten. Kontuak kontu, garaiko gizartea guztiz asaldatu zuen erradikaltasuna ekarri zuten sufragistek. Ordena soziala irauli eta mundua aldatu zuen erradikaltasuna.

1913an sufragistek lehen militante martiria izan zuten: Emily Davison. Munduko emakumeen alde eman zuen bizia. Bere hiletetara 100.000 emakume batu ziren eta sufragisten kausaren gaineko interesa mundu osora zabaldu zen.

**30**

Sufrajista ospetsuenek jatorri burgesa zuten, nahiz eta Emmeline Pankhurstek ehungintzan ziharduten emakume langileak mobilizatzen

asmatu zuen. Era berean, egia da sufragisten mugimendua oso anglozentriko irudikatu dela eta aitorten gutxi jaso dutela beste jatorri eta arrazetako emakumeek, Indiakoek kasu. Dena den, mendeurrenaren ospakizun honetan, gogoratu egin behar da emakume langileek izan zuten garrantzia. **31**

Mugimendu modura ez zuten sekula iritzi publikoaren oniritzia eskuratu. Oso kritikatuak izan ziren sufragistak, baita beste emakume batzuen eskutik ere. Ama eta emazte gisa zegokien eginkizuna traizionatzen zutela pentsatzen zen. **32** Sufrajistek zioten zergak ordaintzen zituztela, eta aurkariak, emakumeek ez zutela gerretan borroka egiten. Beste herrialde batzuetan emakumeek jada bazutela boto-eskubidea aldarrikatzen zuten sufragistek; eta aurkariak erantzuten zieten, eskubidea lortuz gero, parlamentuan ez zirela emakume jator eta inteligenteenak eseriko, «baizik eta sufragista zoro eta biolentoak».

Emakumeen boto-eskubidea munduan Zeelanda Berria aitortu zen aurrenekoz, 1893an. Australiak jarraitu zion bederatzi urte geroago, Finlandiak 1906an, Norvegiak 1913an. Sufrajistek emakumeen ahotsa bilatu, aurkitu eta erabili zuten, iseka eta mehatxuen aurrean beldur barik. Goxotasuna gehiegi balioesten zela iritzita, iragan mendeko emakume sumiso eta umilaren idealaren aurka altxatu ziren. **33**

Onartu, onartu zuten gorrotatzen zituzten asko emakumeak zirela; gainera, denetan sufragisten aurkari nabarmenena Victoria erregina bera izan zen. Eta konturatu ziren, gizonezko askoren ametsa zein zen: emakumeen mugimendua emakumeek berek nola txikitzen zuten ikustea. Sufrajistek mehatxuak, indarkeria, beren aurkako ekintza zuzenak jasan zituzten, baina lasai eta tinko egin zuten aurrera. **34** Eta gaur

egun ere, sufragisten inspirazioak bizirik dirau. Berek hasitako lana ez da inondik inora bukatu. Boto-eskubidearen aldeko borroka sinbolikoa eta praktikoa izan zen. Borrokari esker, emakumeak bizitza politikoan eta publikoan onartu zituzten eta edozein herritarrek beste eskubide lortu zuten. Emakumeak gizakitzat hartzea izan zen

sufragisten apustua, ordura arte zegozkien umezain, garbitzaile, konfort emozionalaren emaile edo sexu-langile lanetara mugatu gabe; jazarriak eta esplotatuak ziren objektuak izan gabe, alegia.

**ZUBIMENDI, M. Naiz, 2018ko otsaila. Egokitua**

### 3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Baina sufragistek beste borroka molde batzuk lehenetsi zituzten: leihoak puskatzea, lehen ministroaren etxean lehergailu bat jartzea, sare elektrikoen aurkako sabotajeak, preso hartzen zituztenean bortxaz elikatuak izaterainoko gose-grebak...
- B.** Publikoaren arreta bereganatzeko forma berriak asmatu zituzten, amorrua eta umorea uztartuz aurrera jarraitu zuten; ez zuten sekula amore eman, eta ia mende bat iraun zuen borroka irabazi zuten.
- C.** Pankhurstek berak ere argi adierazi zuen: «amaitu dira konbentzionalismoak, 'emakume moduan' jokatzeko eta 'modu onak' zaintzea». Aurrerantzean sumisioa ez zen gehiago izan goi mailako bertute noblea.
- D.** Izan ere, beren historia azkar ahaztu zen ospe eta klase sozial handiagoko emakumeen mesedetan; ogia arriskatu zuten emakume langileen sakrifizioa gogoratu beharra dago, aberatsak eta famatuagoak ziren kideena bezainbeste.
- E.** Zeren, emakumeak eta gizonak berdintasun bete eta errealean biziko diren gizartea eraikitzeak inoiz egin den iraultza sakonena egitea eskatzen baitu; emakumeen liberazioak gizakion sustrai kulturalak lurpetik ateratzea eskatzen baitu.
- F.** *Derby Epsom* zaldi-lasterketa ospetsuan, George V.a erregearen zaldiari sufragisten kausaren aldeko banderola jarri nahian ari zela, zaldiaren apatxetara erori eta zanpatuta hil zen.
- G.** *Suffragettes* izenaren jatorria bitxia da: Emmeline Pankhurst ekintzaileak 1906an Manchesterren sortu zuen Women's Social and Political Union erakundeari burla egiteko *Daily Mail* egunkariaren txantxa batetik dator.
- H.** Dena dela, eragozpenak gaindituz, lezio inspiragarri asko utzi zizkiguten sufragistek, emakumeen botoa herri gehienetan (baina ez denetan) aitortuta dagoen eta iraultza feministak aurrera jarraitzen duen garaiotarako oso baliagarriak izan direnak.
- I.** Sufragistek emakumeak Jainkoaren begietara berdinak zirela zioten; haien aurkariak, berriz, emakumeen tokia etxean zegoela eta, politikaren mundu arriskutsura aterako balira, berezkoa zuten «natura zaintzailea» galduko zutela.

#### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	27	28	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.



### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

### 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Autoek sortzen duten kutsadura dela eta, Udalak hainbat neurri jarri ditu martxan hiria atseginagoa eta osasuntsuagoa izan dadin.

Hirigintza saileko teknikaria zara. Neurriek hautsak harrotu dituzte eta eskutitza idaztea erabaki duzu hiritarrak lasaitzeko, neurriak eta zergatiak azaltzeko eta, zalantzarik izanez gero, nora jo ahal duten jakinarazteko.

Idatzi hiritarrentzako eskutitz hori.



### 2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazu iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazu ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**EGOERA:** Teknologia berriei esker azkarrago eta hobeto egiten dugu lan. Baina enpresari askok salatzen dute langileek eskura dituzten laneko baliabide teknologikoak komunikazio pertsonalerako erabiltzen dituztela.

Eztabaida dago langileen pribatutasuna eta langileen lan-komunikazioa kontrolatzeko eskubidea defendatzen dutenen artean.

Zuk, langile zaren aldetik, iritzia ematea erabaki duzu herriko aldizkarian.

#### GAIA: **NORAINOKO PRIBATUTASUNA DUGU LANEAN?**

Estrasburgoko Auzitegiak emandako epai batek ez die debekutzen, ez enpresei langileen lan-komunikazioak kontrolatzea, ez langileei lanean komunikazio pertsonalak izatea.



Baliabideak enpresarenak diren arren, horien erabilera kontrolatu nahi izango balute, langileek alde aurretik jakin behar lukete kontrol hori nola egingo den eta zergatik.

Langileen pribatutasuna urratu baino lehen, kontrol prebentiboak ezar daitezke: telefono zenbaki batzuetara deitzeko edo web-orrialde batzuetara sartzeko baimena mugatu, adibidez.

- Nola erabiltzen dituzte langileek laneko baliabideak?
- Noraino heltzen da langileen pribatutasun-eskubidea lanean?
- Zer deritzozu langileen lan-komunikazioak kontrolatzeari? Zein kasutan onartuko zenuke kontrol hori?
- Ados al zaude kontrol prebentiboak ezartzearekin?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Kultura-mezenasgorako pizgarrien foru-arau proiektua»

1.	B	2.	D	3.	C
4.	A	5.	D	6.	D
7.	A	8.	C	9.	B
10.	A	11.	B	12.	D
13.	B	14.	C	15.	A
16.	D	17.	C	18.	A

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Babes handiagoa izateko giltza»

19.	B	20.	C	21.	A
22.	C	23.	C	24.	A
25.	A	26.	B		

■ **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.

■ **Irakurgaia:**

«Emakumeen boto-eskubideak mende bat beteta, sufragisten iraultzak ez du etenik »

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	E	G	A	F	D	I	C	B

Soberakoa	H
-----------	---